



7 ENERGIA
ESKURAGARRI
ETA EZ-KUTSATZAILEA



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA HERRI MAILAKO DIAGNOSTIKOA

Hirira begira jarriko gara: zikloka antolatutako jarduerak burutu, ondorioak atera eta proposamenak zerrendatu. Eta ondoren, lehentasunetik abiatuta, gure parte-hartzea hirian prestatuko dugu.

HH: ENERGIAZ BIZI!

Energia adierazten duten irudi eta elementuak ezagutuz, jolastu dezagun. Horma-irudiak eta Kuku-Miku.



LH 1-2: LURRA SENDATUKO DUGU!

Lurra gaixotuta dago gaizki jokatzeko dugulako berarekin. Hartu ditzagun ohitura egokiak sendatzen laguntzeko eta ez berriz gaixotzeko.



LH 3-4: NIRE ETXEAK ENERGIA ASKO BEHAR DU

Etxeko tresna ugariak energia behar dute martxan jartzeko. Gure erabileraren arabera, soilik beharrezkoa den energia kontsumituko dugu edo bestela, alferrik gastatu. Kalera ateraz, energiaren seinale diren elementu ugari antzemango ditugu ere.



LH 5-6: MURRIZTU ENERGIA KONTSUMOA ETA ALDATU OHITURAK

Nola esango zenuke erabiltzen duzula energia? Zeintzuk dira zure ohiturak? Denok ez ditugu aukera berdinak. Energia berriztagarriak hirian duten presentzia.

DBH 1-2: ARGIA AL DAUKAGU?

Hiriko argiteria eta hiritarren ohituren eta iritzien bilketa. Kale galdeketa.



DBH 3-4: INOR ATZEAN UTZI GABE

Pobrezia energetikoa: Zer da? Edonori gerta dakiguke. Zer egingo genuke hirian argindarrik gabe geratuko bagina? Komunitate energetikoak.

BATXILERGOA: ENERGIAZ JOKATU, BERTAKOA KONTSUMITU!

Roll jolasa. Pertsonaia ezberdinen azalean jarritz, energia beharren inguruan eztabaida antolatu. Parke eolikoak bai ala ez? Eta gure hirian jarriko balituzke? Zein izango litzateke konponbidea?

ESKU-HARTZE PLANA HIRIAN

Gure energia kontsumoak ez dira jasagarriak.

Aldatzeko garaia da!

Zer?

Nola?

Non?

Hiriko ikasleen artean adostuko ditugun jarduerak proposatu ditzagun. Hiritarrak garen heinean, gu ere mugitu behar gara. Izan gaitzen ekintzaile!